

Donostiar txirrindulariak bikain ziklokrosean

Euskal ziklokrosean David Seco bizkaitarra nagusi den arren, donostiarrak maila ona ematen ari dira. Iñaki Cendrerek laugarren aldiz irabazi berri du Gipuzkoako ziklokros txapelketa, eta Espainiako txapelketan ere podiumera heldu da. Haitz Ortiz eta Iban Mayoz ere onenekin lehiatu dira.

Raul Perez

Iñaki Cendrerek errepidean eman zituen lehenengo pausoak, Gurelesa taldean. Cendrerek Jesus Montoya eta Herminio Diaz Zabala txirrindulari ohi handiak izan zituen taldekide. Hala ere, urteak pasatu ahala, errepideak arreta handia



Iñaki Cendrerek laugarren aldiz irabazi du Gipuzkoako ziklokros txapelketa.

eskatzen zioenez, indarrak ziklokrosera bideratzea erabaki zuen. Guztira lau aldiz izan da Gipuzkoako txapeliduna, azkeneko aldiz duela pare bat aste, Asteasun jokaturako Gipuzkoako txapelketan. Ziklo-krosean lortutako laugarren txapela izan da aurtengoa. Lasterketaren nondik norakoak gogora ekartzeko eskatu diogu Iñakiri: «bizkor

atera nintzen. Zirkuitoari bigarren itzulia eman eta Oier Egaña atzean utzia nuela ikusitakoan, txapelketa irabaz nezakeela konturatu nintzen».

Asteasun jokaturako lasterketa ez zen batere samurra izan. «Euriak eta lokatzak zirkuitoa asko gogortu zuten, eta hori gutxi balitz, aldapa mal-kartsu batek are gehiago zaildu zuen lasterketa», diosku

«Bi txapel irabazi izanak ez du esan nahi hemen aparteko lana egin denik»

txirrindulari amaratarrek. Eskarmentu handiko donostiar hau pedalkadak emateko gogo handiz dago, eta datoren urtean Euskal Herriko berdeguneetan txirriona bizkar gainean ikusiko dugu.

Bi txapel Donostiara

Cendrerenaz gain, donostiarrek bestelako garaipenik ere lortu zuten aipatu txapelketan, 23 urte azpiko mailan Haitz Ortizek garaipena erdietsi baitzuen. Emaizta on hauek jarraipena izan dute Espainiako txapelketan, podiumari begiratzea besterik ez dago horretaz jabetzeko. Arrakasta honek ez du aparteko esanahirik Iñakirentzat. «Bi txapel irabazi izanak ez du esan nahi hemen aparteko lana egin denik. Tradiziorik ez dago, eta gainera urte asko daramatzagu elkartean borondaterik ikusi gabe, Gipuzkoan aurten antolatutako lasterketa bakanak horren lekuko. Lasterketa eskasiak eragin zuzena du babesleengan, oso zaila baita babesleak gure kirolera gerturatzea lasterketen erakusleihoa eduki gabe».

Ziklokrosa Urgullen eta Intxaurren

Azken urteotan lasterketak antolatu ez badira ere, Donostian ziklokros txapelketak maiz jokatu izan dira. 70ko hamarkadan, beti urtarrila aldera, Urgullen hainbat lasterketa egin ziren. Irteera eta helmuga Pasealeku Berriko garai bateko elizaren parean jartzen zen. Txapelketotan goi mailako txirrindulariek parte hartu ohi zuten, besteak beste, aipatzekoak dira Luis Ocaña eta Felice Gimondi. 80ko hamarkadan, berriz, Intxaurrendoko egungo Mons pasealekuan ziklokros txapelketak jokatu ziren. Azken urteotan, ordea, Donostian ezezik Gipuzkoa osoan asko murriztu dira ziklokros lehiaketak.

